

SAIL OFIZIALA



63

DONOSTIA ZINEMALDIA
FESTIVAL DE SAN SEBASTIAN
INTERNATIONAL FILM FESTIVAL

AMAMA

ZUHAITZ BAT ERORTZEN DENEAN

TXINTXUA FILMSEK AURKEZTEN DU

ASIER ALTUNA REN FILM BAT

KANDIDO URANGA · IRAIA ELIAS · AMPARO BADIOLA · KLARA BADIOLA · ANDER LIPUS · MANU URANGA

ARGAZKIA JAVIER AGIRRE ERAUSO · MUSIKA JAVI P3Z, MURSEGO · MUNTATIA LAURENT DUFRECHE · BIDDIA ASIER ALTUNA, TELMO ESNAL · SCRIPT MANAGER MICHEL GAZTAMBIDE

ZUZENEZKO SÖNÜA PABLO BUENO · SÖNÜ OISEINUA HAJMAR OLASKOAGA · ZUZENDARI ARITZ URDAS · MIKEL SERRANO · ZUZENDARI LAGUNTZAILEA TELMO ESNAL

ERDIZPEN ZUZENDARIA ANDER SISTIAGA · JANTZIARIK LEIRE ORELLA · MAKILLAJEA LOLA LOPEZ · ILE-APAIKETA ITZIAR ARRIETA

EKOIZLEA MARIAN FERNANDEZ PASCAL · ZUZENDARIA ASIER ALTUNA IZA

© amamafilm · www.tb.com/amamafilm · www.txintxua.com · www.txintxua.com

ikasleen fixa

KOLEGIA ZINEMARA





● Fitxa teknikoa

Euskal Herria | 2015 | 1:43

Zuzendaria

Asier Altuna Iza

Gidoia

Asier Altuna Iza eta
Telmo Esnal, Michel
Gaztambideren laguntzaz

Musika

Javi P3z eta Maite
Arroitauregi “Mursego”

Formatua

1.35, koloretan, digitala

Antzezleak:

Iraia Elia s: Amaia
Kandido Uranga : Tomas
Amparo Badiola : Amama
Klara Badiola : Isabel
Ander Lipus : Xabi
Manu Uranga : Gaizka

● Sinopsia

Baserriko euskal familia batean, Amaia hiru haurrideetarik gazteena da. Etxaldea bere gain hartu behar lukeen seme zaharrenak, Gaizkak, atzerrira joatea erabakitzen duenean, belaunaldien arteko gatazka pizten da. Amamaren begirada sarkorraren aitzinean, Amaiak bere aitaren zurruntasunarekin talka egiten du. Izan ere, aita ohituren menpe eta etxaldeko lanen erritmo latzaren arabera bizi da. Bere bidea aurkitzeko, Amaiak etxaldetik atera behar du, aitari buru egin, mina sortu, familia harremanak hautsi... baina aitzinatu nahi badu, arbasoen eta etxaldearen ondarearekin nolabait bat egiten duen bizimoldea aurkitu behar du. Anartean, amamak denei begiratzen die, haren begiradak gertatzen ari den aldaketari zentzua ematen balio bezala; mundu bat bukatzen da eta badirudi beste bat azaleratzen dela...

“ Duela 80 amama, neolitikoan bizi ginen”

Amaia

● Sekretu xuxurlatua

Azalean agertzen den afixari eta ikaslearen fitxako fotogramei begiratuz, filmaren zenbait gai asma ditzakegu, baita pertsonaia nagusiak ere.

①

Zein pertsonaia agertzen dira afixan ?
Nolako jarrera dute ? Zein izan daiteke haien arteko lotura ?

②

Tituluaren azpian hurrengo erranaldia irakur dezakegu: “zuhaitz bat erortzen denean”.
Zer ikusten da gibeiko planoan ?
Zer iradokitzen du ?

③

Filma ikusi ondotik, begira berriz afixari.
Zer xuxurlatzen ahalko luke amamak neska gaztearen belarrira ?

● Asier Altuna, begirada sarkor eta poetikoa

Euskal zinemako zuzendari nabarmena baita, Asier Altunak bere film laburren bereizgarri den adimen sortzailea darabil Amama filman. Zinegileak sormenezko film laburrak eginez (Topeka edota Soroa, besteak beste) eraiki du bere ospea. Halaber, lagun duen Telmo Esnalekin batera idatzi eta zuzendu ditu zenbait film. Kritika sozialean, inkomunikazioan, belaunaldi arteko talkan, baserria – kalea dikotomian eta desagertzeaz dagoen baserri eremuan aurkitzen du anitzetan bere lanen inspirazioa. Amama zuzendariaren fikziozko bigarren film luzea da eta pertsonalena ere bai, baserrian hazi haurra izanki, bere esperientzian oinarritu baita.

● Belaunaldien arteko gatazka

Amama filmaren izenburuak «amatxi» erran nahi du. Begirada soraiko amatxi isil honek, artoski behatzen dio familia karraskatzen ari den belaunaldi-gatazkari. Tomasek, aitak, ideia biziki zehatza du bere hiru seme-alaben patuari buruz. Etxaldearen ondoko oihanean zuhaitz bana dute haurrideek, sortu zirenean eratziki baitzitzaien bakoitzari bat. Amamak zuhaitzak margotu zituen haurride bakoitzaren izaeraren arabera. Gaizkarentzat, haur zaharrenarentzat, gorria, indarra irudikatzen duen kolorea. Zuria Xabirentzat, indar gabea eta alferra aitaren begietara. Azkenik Amaiarentzat, gazte errebelde eta gaiztoarentzat, kolore beltza. Tomas ondarearen eta antzinako laborantza jեսtuen transmisio-balioei lotua zaie. Baina hala seme nagusiak nola bigarrenak etxetik joan dira. Halaber, aitarekin ukan hamaikagarren eztabaidaren ondorioz, Amaia ere etxaldetik alde egiteak Tomas aztoratzen du. Lehenik bere horretan finko badago ere, Amaiaren sorkuntza artistikoak emozio handia sortzen du aitarengan eta orduan hasten dira aldaketak familia barnean.



● Bide oartea, arte askatzailea Amaiarentzat

Amaia artista da eta bere unibertso artistikoa garatzen du filmaren beraren narrazioaren barnean. Horretarako, irudi formatu karratua eta “retro” efektua ematen dituen Super 8 kamera baliatzen du (horrela deitua 8 mm-ko pelikula duelako). Protagonistaren lanen itxura esperimentalak dimentsio sinboliko eta poetikoa eranstean dio filmaren kontakizunari. 8 mm-ko formatuari esker errazki ezberdintzen dira pertsonaiak grabatu irudiak eta filma bera. Adibidez, Amaiaren eta haren aitaren arteko liskarraren eszenan, aitak alabaren zuhaitza bota eta gero, oihan suntsitu bat irudikatzen duten bideo artistikoak erakusten dira. Eztabaidaren bortizkeria paisaia hondatuekin eta zuhaitzaren enborreko zauriarekin lotzen da. Amaiak hor egiten duenari “bideo artea” deitzen zaio. Jarduera artistiko hori Estatu Batuetan agertu zen 60ko hamarkadan eta, orduz geroztik, ugariki eman ditu ekoizpenak, begirada intimoak eta, maiz, subertsiboak. Haren



ezaugarri teknikoak direla eta—material merkea, arina eta erabilerraza, emakumezko zuzendari anitzek bideoartea bereganatu dute, baita garatzen lagundu ere. Horri esker, emazte anitzek beren nortasunari dagozkien gaiak esperimentatu eta aztertu izan dute: generoa, sexualitatea eta emazte izatea.

● Bi bideo formatu



Amama irudi formatu ezberdinez osatua da. Horietarik batek narrazioan gertatzen dena irudikatzen du eta, besteak, Amaiak filmatzen duena. Hona hemen bi bideo formatuetan hartu irudiak.

①

Zeintzuk dira bi irudien arteko ezberdintasunak (formatua, kalitatea, kolorea...) ?

②

Zer sentiarazten eta pentsarazten dute Amaiaren bideoek ?

● Sekuentzia baten azterketa haustura


Amaia eta haren aitaren arteko haustura filmaren mugarrietako bat da. «Gaiztoa» dela erran baitio, Tomasek alabaren haserre gorria piztu du. Sumindurik, Amaiak motozerra hartu eta sagarrondo baten enborra moztzen hasi da. Tomasek ezin du gehiago. Motozerra eskuetatik kentzen dio bortizki eta oihanera doa, Amaia sortze-zuhaitza mozttera.

① Zure iritziz, Tomasek Amaia jaiotzako zuhaitza moztzen duelarik, zer ulertarazi nahi dio bere alabari ?

- ② Zergatik beltzak dira 5. eta 6. irudietako ertzak ? Hondaturiko paisaia baten aitzinean aurpegia beltzez margotzen duelarik, zein da, zure ustez, Amaiak adierazten duen sentipena ?
- ③ Azken irudian, zer hasten da egiten Amaia ?
- ④ Nolakoa da 7. irudia ? Pikatua ala kontrapikatua ? Zer sentiarazten du zuhaitzak molde horretan filmatzeak ?



ZINEMAREN HIZTEGITXOA



Hiztegi txikiak bildumatik hartua
Hendaia, Biarritz, Baionako hiriak - EHE - EEP
Marrazkiak: Laure Gomez

Zinemaren hiztegitxo

Petit lexique du cinéma



● Zinema sailak

Catégories cinématographiques

Egokitzapena : Adaptation
Animazioa : Animation
Biografia : Biographie
Dokumentala : Documentaire
Fikzioa : Fiction
Filma : Film
Sortzaile filma : Film d'auteur
Ordenagailuzko irudia : Image de synthèse
Bertsio berria : Remake

● Film mota

Genre de films

Kronika soziala : Chronique sociale
Komedia : Comédie
Komedia erromantikoa : Comédie romantique
Drama : Drame
Fantastikoa : Fantastique
Beldurrezko filma : Film d'horreur
Historia filma : Film historique
Polizia-filma : Film policier
Zientzia fikzioa : Science-fiction

● Iraupena

Durée

Film laburra : Court métrage
Film luzea : Long métrage
Film ertaina : Moyen métrage



● Lanbideak

Métiers

Kameraria : Cameraman
Banatzailea : Distributeur
Zinema-jabe / Zinema-gela zuzendaria : Exploitant
Ekoizlea : Producteur
Film egilea / Zinegilea : Réalisateur

● Filmaren inguruan

Autour du film

Aitzin estreinaldia : Avant-première
Trailer / Aurrerakina : Bande annonce
Zinemako sailkapena : Box office
Zentsura : Censure
Zinemazalea : Cinéphile
Klixea : Cliché
Kritika : Critique
Atzera begirakoa : Rétrospective
Kitzikiragarkia : Teaser
Estreinaldia : Première



● Soinua

Le son

Jatorrizko soinu-banda : Bande originale
Soinu-banda : Bande-son
Soinu efektuak : Bruitage
Zinema mutua : Cinéma muet
Musikagilea : Compositeur
Elkarrizketak : Dialogues
Bikoizketa : Doublage
Soinu-teknikaria : Ingénieur du son
Azpituak : Sous-titres
Jatorrizko bertsioa : Version originale
Off-eko boza : Voix-off

● Zinema filmatu

Filmer le cinéma

Hartualdi angelua : Angle de prise de vue
Irudi gelditzea : Arrêt sur image
Enkoadratzea : Cadrage
Kontraeremua : Contrechamp
Kontrapikatua : Contre-plongée
Efektu bereziak : Effets spéciaux
Itzaltzea : Fondu
Lehen plano handia : Gros plan
Eremuz kanpoa : Hors champ
Panoramikoa : Panoramique
Plano zabala : Plan large
Sekuentzia plana : Plan séquence
Pikatu / Goitik beherako hartzea : Plongée
Kamera geldoa : Ralenti
Zooma : Zoom

● Urratsak

Les étapes

Muntaketa : Montage
Postprodukzioa : Postproduction
Filmaketak : Prises de vues
Promozioa : Promotion
Leku bilaketa : Repérages
Gidoia : Scénario
Script / Film idazkia : Script
Storyboard / Irudi-gidoia : Storyboard
Sinopsia : Synopsis
Filmaketa : Tournage



● Aktoreak

Distribution

Agentea : Agent
Karrera : Carrière
Arrisku-eszena : Cascade
Aktoreak : Casting
Hegalak : Couloisses
Ordezkoa : Doublure
Figurantea : Figurant
Heroia : Héros
Aldagelak : Loges
Pertsonaia : Personnage
Filmaketa platoa : Plateau
Kontrol-gela : Régie
Rol nagusi / Paper nagusia : Rôle principal
Izarra : Star



● Zineman

Au cinéma

Arte eta entsegua : Art et essai
Pantaila : Ecran
Azken eszena : Final
Kredituak : Générique
Sarrera : Introduction
Gela anitzeko zinema : Multiplexe
Emanaldia : Projection
Zinema gela : Salle de cinéma
Eszena : Scène
Ikuslea : Spectateur
Txartela : Ticket
Krispeta-artoa : Popcorn

